

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**387/2021 Foru Agindua, urriaren 7koa, hutsak zuzentzea kontzejuetako biztanleen kopuruan eta, horren ondorioz, datorren azaroaren 21eko hauteskundeetan administrazio batzarretarako hautatu beharreko kideen kopuruan, bakar-bakarrik Gasteizko udalerriko kontzejueri dagokienez**

Urriaren 1eko 377/2021 Foru Aginduaren bidez, zerrenda bat onetsi zen, non Arabako Lurralde Historikoko kontzeju bakoitzeko biztanleen kopurua jasotzen baitzen, 2021eko irailaren 1eko biztanle erroldako datuei jarraituz, bai eta kontzeju horietako administrazio batzarrak osatzen dituzten kideen kopurua ere, errejidore lehendakaria barne hartuta, kontuan izanik Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauaren 2.2 artikuluan ezarritakoa.

Hura onetsi eta gero, Gasteizko Udalak jakinarazi du huts bat dagoela zerrenda horretan, bere udalerriko kontzejueri dagokienez. Horregatik, beharrezkoa da zerrenda hori, zuzenduta, berriro argitaratzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan ezarrita dago ezen administrazio publikoek, halaber, edozein unetan zuzendu ditzaketela, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Horregatik, hauteskunderi buruzko foru arau horretako bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat etorriz, eta Foru Gobernu Kontseiluak irailaren 14ko 528/2021 Erabakiaren bidez erabakitako gaikuntzaz baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Agindu honekin batera doan zerrenda argitaratzea. Hartan, Arabako administrazio batzarretako kideak izendatzeko hurrengo hauteskundeak direla eta, Gasteizko udalerriko kontzeju bakoitzeko biztanleen kopurua jasotzen da, 2021eko irailaren 1eko biztanle erroldako datuak kontuan izanik, bai eta haietako bakoitzeko administrazio batzarra osatu behar duten kideen kopurua ere, errejidore edo lehendakaria barne hartuta, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauak 2.2. artikuluan horren inguruan xedatutakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 7a

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**

## ERANSKINA

UDALERRIA	KONTZEJUA	BIZTANLEAK 2021/09/01EAN	HAUTETSI KOPURUA
VITORIA-GASTEIZ	ABETXUKO	30	3
	ABERÁSTURI	133	3
	EHARI	130	3
	AMÁRITA	58	3
	ANDOLLU	42	3
	ANDETXA	80	3
	ARANGIZ	105	3
	ARKAUTI	81	3
	ARKAIA	95	3
	ARETXABAETA	102	3
	ARGANDOÑA	42	3
	ARIÑIZ	131	3
	ARMENTIA	274	3
	ASKARTZA	59	3
	ASTEGUIETA	294	3
	BERROSTEGIETA	147	3
	BETOÑO	438	4
	BOLÍVAR	15	3
	GAZTELU	66	3
	ZERIO	43	3
	KRISPIÑA	43	3
	ELORRIAGA	110	3
	ESKIBEL	2	
	ESTARRONA	63	3
	FORONDA	47	3
	GAMARRA NAGUSIA	242	3
	GAMARRA MENOR	24	3
	GAMIZ	31	3
	GARDELEGI	90	3
	GOBEO	27	3
	GOMETXA	53	3
	GEREÑA	57	3
	OTOBARREN	43	3
	OTOGOIEN	59	3
	ILARRATZA	91	3
	JUNGITU	114	3
	LASARTE	270	3
	LEGARDA	57	3
	LERMANDA	18	3
	LOPIDANA	25	3
	LUBIANO	33	3
MARGARITA	35	3	
MARTIODA	36	3	
MATAUKO	48	3	
MENDIGUREN	28	3	
MENDIOLA	250	3	
MENDOZA	106	3	
MIÑAO	88	3	
MIÑAO GUTXIA	25	3	

UDALERRIA	KONTZEJUA	BIZTANLEAK 2021/09/01EAN	HAUTETSI KOPURUA
<b>VITORIA-GASTEIZ</b>	MONASTERIOGUREN	44	3
	OREITIA	75	3
	OTAZU	76	3
	RETANA	49	3
	SUBILLANA-GASTEIZ	50	3
	URIBARRI NAGUSIA	47	3
	ULLÍBARRI-ARRAZUA	81	3
	URIBARRI-DIBIÑA	42	3
	VILLAFRANCA	153	3
	IHURRE	51	3
	ZUHATZU	146	3
	ZUMELTZU	51	3